sestaoBERRI

2017ko JARDUEREN MEMORIA

AURKIBIDEA

3

SARRERA
SOZIETATEKO EGOERAREN ETA JARDUERAREN BILAKAERA

5

PROZESUEN MAPA

I PROZESUA
PLANGINTZA ETA BERRIKUNTZA

II PROZESUA
HIRIKO BIZIBERRIKUNTZA, BERRIZTAPENA ETA ZAHARBERRIKUNTZA ETA ETXEBIZITZAREN KUDEAKETA

III PROZESUA
BALIABIDEEN ETA SISTEMEN KUDEAKETA

18

2017an ONARTUTAKO AURREKONTUA

19

SOZIETATEAREN BILAKAERARI BURUZKO AURREIKUSPENA

22

URTEKO KONTUAK

Sarrera

SOZIETATEKO EGOERAREN ETA JARDUERAREN BILAKAERA

LUISKAR DELGADO
SESTAO BERRI 2010, S.A. SOZIETATEKO ZUZENDARI GERENTEA

2017an **egindako jarduketen artean** Txabarri kaleko 25etik 31ra doazen atarietan egindako zaharberrikuntza integralerako lanen amaiera aipagarri deritzot lehenengo eta behin. Baita ere nabarmenduko nituzke Txabarri kaleko 31. eta 35. atarietako berreraiketa lanen aurrerapena eta 55. zenbakiko berreraiketarako lanen hasiera, hirugarren pribatu batekin hitzarmena lortu ondoren. Txabarri kaletik irten gabe, 57. atariko orube eta eraikineko titularitatea lortu genuen lursail zatiketa proiektuen bidez.

Lankidetza publiko-pribatuaren bidez garatutako jardueten artean Abenduak 25 kaleko 20. zenbakiko jabeen erkidego pribatuaren zaharberrikuntza integralerako lanak (berdentsifikazioaren bitartez) aipagarri ditut. Erkidegoa PERRI Txabarri-El Soleko ekimen publikoko 1. egikaritze-unitateko hirigintza-kargen eraginpean zegoen. Atal honetan azpimarratzekoa dugu Karrantza kaleko 1etik 4rako atarietan eta Orixe kaleko (Nikolas Ormaetxea, lehenago) 6. atarian bizi ziren lagunen birkokapena Eusko Jaurlaritzak Orixe kale berrian sustatu dituen 44 etxebizitza sozialetan. Honi esker, kondizio txarreko etxebizitzak birrindu ahal izan dira bertan bizi ziren lagunen bizimodua hobetuz.

Mugarri hauekin batera aipatu nahi ditut **2017ko Urterako Lan Planaren** helburuetan lortutako aurrerapen nabarmenenak. Jarraian atxikitakoak:

- Udal-lursailen trukeagatiko ordainketa moduan VISESAk Sestaoko Udalari emango dizkion 58 etxebizitzen barruan, Galindo ibarreko espedientean birkokapenerako sinatutako eta konprometitutako 33 hitzarmenen jarraipena egitea.
- Txabarri 25etik 31rako ARI Txabarri biziberritzeko 1. fasean, 47 etxebizitza (33 BOE + 14 EA) zaharberritzeko lanen emaitza
- Txabarri 33 eta 35 orubeetan 18 etxebizitza berri eraikiko diren lanen aurrerapena eta Txabarri 55 berraikatzeko hitzarmena bertako orubea besterenduta (ARI Txabarri Biziberritzeko 2. Fasea), Txabarri 33-35 eta 55 zenbakiei dagokiona.
- 2014-2015eko epealdian diru-laguntza jaso duen Los Baños 51ko orube eta eraikineko eraisterako prestakuntza
- ARI Txabarri Biziberritzeko 3. Fase barruan, 2015-2017ko epealdian diru-laguntza jaso duten Txabarri 37., 43. eta 57. atarietako Titularitatea lortu izana.
- 2016-2018ko epealdian diru-laguntza jaso duen Los Baños 49ko titularitatea lortzeko prozesuan aurrerapenak.
- 2016ko laguntzen udal-deialdira eta 2017ko garapen laguntzen deialdira aurkeztu diren Txabarri 65, Txabarri 73 eta Los Baños 49 Zatika Zaharberritzeko lanen kudeaketaren jarraipena egitea.
- 2015-2016ko epealdian diru-laguntza jaso duen Abenduak 25 kaleko 20. zenbakiko Zaharberrikuntza Integralerako lanen emaitza.
- 2016-2018ko epealdian diru-laguntza jasoko duen Txabarri kaleko 47. eta 49. atarietako Titularitateen erosketarako kudeaketan aurrerapenak.
- Etxebizitzen udal-parkearen eta ASAP sustatzeko jarduketa-programaren jarraipena egitea eta kudeatzea.
- Europako EU GUGLE, PAPIRUS, TRIME eta NEZER proiektuen jarraipena egitea.

Sarrera

PROZESUEN MAPA

Aurrean aipatutako lana sendotu egin da EFQM ereduan oinarritutako **Prozesukako Kudeaketa Sistemaren** bidez. Hona hemen prozesu horien mapa:



Antolakuntza-mapa horren arabera, honako jarduera eta proiektu hauek garatu dira:

I PROZESUA
PLANGINTZA ETA BERRIKUNTZA

KONTZEPTUA	KODEA	IZENA
JARDUERA	1. PROZ.-A001	PLANGINTZA
JARDUERA	1. PROZ.-A002	BERRIKUNTZA

II PROZESUA
HIRIAREN BIZIBERRIKUNTZA, BERRIKUNTZA ETA ZAHARBERRIKUNTZA ETA ETXEBIZITZEN KUDEAKETA

KONTZEPTUA	KODEA	IZENA
JARDUERA	2.PROZ.-A001	ZATIKAKO ZAHARBERRIKUNTZA
JARDUERA	2.PROZ.-A002	UDAL ETXEBIZITZAK
JARDUERA	2.PROZ.-A003	ASAP
PROIEKTUA	2.PROZ.-P001	I. FASEA: TXABARRI 25-31
PROIEKTUA	2.PROZ.-P002	II. FASEA : TXABARRI 33-35 eta 55
PROIEKTUA	2.PROZ.-P003	GALINDO IBARRA
PROIEKTUA	2.PROZ.-P005	III. FASEA : TXABARRI 37,43 eta 57
PROIEKTUA	2.PROZ.-P006	BAÑOS 51
PROIEKTUA	2.PROZ.-P007	ABENDUAK 25, 20
PROIEKTUA	2.PROZ.-P008	10 ETXADIA PATRONATU ZAHARREKO ATARIAK
PROIEKTUA	2.PROZ.-P009	LA BARIEGA 2
PROIEKTUA	2.PROZ.-P009	LOS BAÑOS 22-24 eta AUT 21
PROIEKTUA	2.PROZ.-P0011	BAÑOS 49
PROIEKTUA	2.PROZ.-P0012	TXABARRI 47-49

PROCESO III
BALIABIDEEN ETA SISTEMEN KUDEAKETA

KONTZEPTUA	KODEA	IZENA
JARDUERA	3.PROZ.-A002	EGITURAREN EUSKARRIA
PROIEKTUA	3.PROZ.-A002	EU GUGLE
PROIEKTUA	3.PROZ.-P002	EU PAPIRUS
PROIEKTUA	3.PROZ.-P003	EU TRIME
PROIEKTUA	3.PROZ.-P004	EU NEZER

Orohar, 2017ko kudeaketaren balantzea oso ona izan dela esan genezake, jarduera gehienetan aurrerapen esanguratsuak lortu zirelako, batez ere, 2. Prozesuko (Hiriaren Bizi-berrikuntza, Berrikuntzaz eta Zaharberrikuntza eta Etxebizitzen kudeaketa) proiektu eragileetan eta Sestao Berriren partaidetza eraginkorra duten proiektu europarretan.

Ondoren azalduko ditugu arlo bakoitzeko aurrerapen esanguratsuenak Prozesuen Mapan ezarritako eskema jarraituta:

I. PROZESUA

PLANGINTZA ETA BERRIKUNTZA

II. PROZESUA

HIRIKO BIZIBERRIKUNTZA, BERRIZTAPENA ETA ZAHARBERRIKUNTZA ETA ETXEBIZITZAREN KUDEAKETA

III. PROZESUA

BALIABIDEEN ETA SISTEMEN KUDEAKETA

Prozesuen mapa

I. PROZESUA
PLANGINTZA ETA BERRIKUNTZA

Berrikuntzaren atalean nabarmendu egin behar dira Sestao Berrik **2018-2020 Etxebizitzaren Plan Gidaria**ren zirriboroaren prestakuntzan parte hartu izana eta **Txabarri-El Sol PERRIren 4. aldaketarako berrikusketa** tramitatzeko prestaketa-lanen amaiera. Berrikusketa honen bidez PERRI osoa sakonean berraztertu nahi da, 2008an hasitako krisi ekonomikoaren osteko gaur egungo egoera sozio-ekonomikoa eta baliabideak kontuan hartuta.

Prozesu honen barruan ere aipagarri deritzogu **"District Heating"**, auzo-beroketarako proiektua idazteko eskaera. Biomasaz eragindako berokuntza sareak Txabarri-El Sol ARI barruko eta inguruneko auzoan zabalduko da.

Beste alde, **Hiri Garapena Jasangarrirako Estrategia** birplanteatu dugu Europako deialdietara aurkeztu ahal izateko, Bizkaiko Foru Aldundiak lurraldeko udalerri txiki eta ertainei laguntzeko sortu duen Europarako Orientabide Bulegoaren bitartez.

Azkenik, **La Iberia-Behekoan ARI berria** adierazteko egin den sozio-hirigintzako ikerketan parte hartu dugula esan behar dugu eta beste horrenbeste egin dugula **Sorospen-Etxea eta Ikastunen Eskolarako Programa Estrategikoan** eta **Txabarri eremuko Garapen sozio-komunitariorako Plana**ren kasuan.

Prozesuen mapa

II. PROZESUA
HIRIAREN BIZIBERRIKUNTZA, BERRIKUNTZA ETA ZAHARBERRIKUNTZA ETA ETXEBIZITZEN KUDEAKETA

Prozesu honek hiru jarduera eta zazpi proiektu eragile bezain estrategiko batzen ditu.

ZATIKAKO ZAHARBERRIKUNTZA

Txabarri-El Sol ARI-en antolamendu barneko 25 atarietako jabeen erkidegoen eta Sestao Berriren artean sinatutako hitzarmenaren jarraipena aipatzekoa dugu zatikako zaharberrikuntzaren atalean. Hitzarmenak urteroko helburuak ezartzen ditu eraikinon zatikako zaharberritzerako. Sestao Berrik erkidegootako finka administraritza bereganatu du, erkidegoentzat kosturik gabe. Era berean, Sestao Berrik aholkua ematen die erkidegoei diru-aurrezpenerako, berankortasun egoera hobetzeko eta eraginkortasun energetikoaren, jasangarritasunaren eta irisgarritasunaren irizpideak ezartzeko birgaitze lanetan.

2017an, Txabarri 73. atariko aurrealde nagusiko birgaitze lanak amaitu ziren eta Txabarri 65. atariak solairuan zituen arazoak konpondu ziren

2017 urtean Txabarri-El Sol-eko ARI barneko Zatikako Zaharberrikuntzan inplikaturik dauden erkidegoek ez zuten eskaririk aurkeztu birgaitzerako laguntzen udal-deialdian, Los Baños 47an eta Txabarri 65 eta 69an hartu beharrekoak ziren jardueten tamaina ikusita. Hau dela eta, Los Baños 47 eraikina erosteko aukera dago Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza nominatiboari esker. Honen bidez, gerora begira lur sailkapen berria egin daiteke eta Txabarri 65aren eta Txabarri 69aren birgaitze integrala hasi Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzekin.

ALOKAIRUKO UDAL-ETXEBIZITZEN PARKEAREN KUDEAKETA

2017 urtea %95,73ko okupazioarekin amaitu zen. Bataz besteko errenta 83,05 euro izan zen; berankortasuna, %1,63koa eta diru-bilketa, 113.837,66 eurokoa.

Iaz ere, Udal-Etxebizitzen parkeak **etxebizitza sozialetako kontsumo energetikoa murrizteko TRIME Proiektu Europarrean** parte hartu zuen. Programak hezkuntza eta kontzientziazio energetikoa bultzatzen ditu eta argiaren, gasaren eta baita uraren faktura energetikoa gutxitzeko inbertsioak egin ezin dituzten lagunei zuzenduta dago. Proiektua garatzeko hiru "energia-enbaxadore" bildu dira aurrezki energetikoaren sustatzaile gisa. Hiru enbaxadoreok zazpi jarraitzaile lortu zituzten.

PATRONATU, LOS BAÑOS, AUTONOMIA ETA LA BARIEGA-KO BIRGAITZE ENERGETIKORAKO DIRU-LAGUNTZAK

Energia aurrezpenaren alorretik irten gabe, azpimarratzekoa da udal partaidetza nabaria den zenbait jabego erkidegoek birgaitze energetikoa aurrera eramateko diru-laguntzak eskatu izana. Besteak beste, Patronatuko Etxadia, Los Baños 22-24, Autonomia 21 eta La Bariega 2 erkidegoek inguratzailearen eta instalazio termikoen birgaitze energetikorako diru-laguntzak eskatu dituzte Espainiako Gobernuaren Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko IDAE Dibertsifikazio eta Aurrezpen Energetikorako Institutuak abian jarritako PAREER II Programan eta Europar Batzordeko 7. Programa-esparruko EU-GUGLE proiektuan.

ASAP PROGRAMA

Programa honen kudeaketari dagokionez Sestaon, azpimarratu egin behar da etxebizitza horiek esleitzeko prozesuan jarritako hobekuntza, Eusko Jaurlaritzako web plataforma baten bidez. Bertan, Sestaon alokairuko etxebizitzetako eskatzaileek zer eskaintza dauden, etxebizitzaren ezaugarriak zeintzuk diren eta errentaren zein diru-sarreren inguruko eskakizunak zeintzuk diren ikusi ahal dituzte, euren lehenespenak zehaztuz. Hobekuntzak programa zertxobait atzeratu duen arren, 2017an Sestaon, ASAP Programak 15 etxebizitza erakarri eta 12 alokatu zituen, batez besteko errenta 477 eurora gora eginez.



TXABARRI 25-31 ZAHARBERRIKUNTZA INTEGRALA

Prozesuen Kudeaketa sisteman garatzen ditugun proiektuen artean Txabarri 25etik 31rako atarien zaharberrikuntza integralerako obren amaiera nabaritu behar dugu.
Bertan, 47 etxebizitza berri sustatu dira; haietatik 33, BOE dira eta 14, etxebizitza askeak. Etxebizitzen emanaldiak azken bost urteotan egindako lana agerian jarri du, urteotako lana beharrezkoa izan da eta ARI Txabarri-El Sol biziberritzen hasteko behar besteko hitzarmenak, esleipena eta finantziazioa lortu ahal izateko.

TXABARRI 33-35 ETA 55 BERRERAIKETA ETA TXABARRI 55 HASIERA

Txabarri 33-35 eta 55 Berreraikitzeko lanak aurrera egin zuen nabarmen. Bertan Babespen Ofizialeko 18 etxebizitza egingo dira. Txabarri 55. atariari dagokion lana ere abian jarri zen, orubea besterendu ondoren. Bertan 10 etxebizitza aske berreraikiko dira Txabarri kaleko hiru atariotako diru-laguntzen hitzarmena beteaz.



GALINDO IBARREKO LEHEN ETXEBIZITZA BABESTUAK

2017an garatutako eta kontuan hartzeko beste jarduketa bat Galindo ibarreko espedientearen hirigintza-kudeaketari dagokio, hain zuzen ere, babestutako lehenengo 163 etxebizitzen eraikuntzaren amaiera. Etxebizitza horietatik 58, etxebizitza sozialak dira (Sestaoko Udalak lursailak lagatzearen truke) eta beste 105, BOE (horien erdiak saldu egingo dira eta beste erdiak babespean alokatuko dira). Sestao Berrik behin-behinean birkokatutako 33 familien jarraipena eguneratu du, La Punta izenarekin ezaguna den inguru honetako etxebizitza berrietan behin betiko birkokapena bideratzeko.

Galindo Ibarrean jarraituz, 2017an Sestao Berrik eta Visesak espediente honen 2. faseari dagokien hirigintza-kargen azterketa aurreratu zuten. Banan-banan zenbait elkarrizketa egin ziren akordioak lortu asmoz eraikitzen ari diren 163 etxebizitzetan birkokatuz.

EGITURAZKO ARAZOAK DITUZTEN ERAIKINAK: TXABARRI 57 ETA LOS BAÑOS 51

Zenbait arrazoirengatik egiturazko arazoak dituzten eraikinak direla eta, bi kasu nabarmendu behar ditugu. Lehenengoa Txabarri 57. atarikoa da. Eusko Jaurlaritzak 2015-2017 epealdirako erdietsitako 600.000 euroko diru-laguntza hartu zen birsorkuntzaren 3.Fasea aurrera eramateko; kale bereko 37 eta 43 atariek ere bat egin zuten birsorkuntzarekin. Diru-laguntzaren helburua jabegoak lortzea da egiturazko arazoei eta arazo sozio-ekonomikoei aurre egiteko. 2017ren amaiera aldean Txabarri 57 atariko lur-sailkapen proiektua onartu zen behin betiko. Txabarri 37. atariko lur-sailkapen berrirako proiektuan ere parte hartu zuen Sestao Berrik eta Txabarri 43. atariko negoziaketetan ere bai.

Los Baños kaleko 51 atariak ere egiturazko arazoak ditu. Eraikin honi dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren 331.000 euroko diru-laguntzei esker (2014 eta 2015) eta lur-sailkapen berriaren bitartez jabetza lortu zen 2016an.

Jabe bakoitzak emandako metro karratuei esker 5 etxebizitza berri erdietsi dira, Erkidegoa jabe delarik. Honi esker eta eraikinaren etxabean dagoen lokal komertzialeko aparteko diru-ekarpenari esker jarduketa bideragarria izan da. Gainerako 5 etxebizitzak Sestaoko Udalari eskaini zaizkio eros ditzan.

ABENDUAK 25 KALEKO 20 ATARIAREN ZAHARBERRIKUNTZA INTEGRALA

Lankidetza publiko-pribatuko jarduera egokiaren adibide moduan nabarmendu behar da Abenduak 25 kaleko 20. atariaren zaharberrikuntza integralerako obren amaiera. Eusko Jaurlaritzak bi urtetan banatutako 540.000 euroko diru-laguntza eman du (2015 eta 2016), hirigintza-kargak betetzeko eta higiezina oso-osorik zaharberritzeko. Erkidegoko jabegoaren kudeatzaile gisa, Sestao Berrik administrazio publikoen (Eusko Jaurlaritzaren eta Sestaoko Udalaren) diru-laguntzak frogatu zituen. Zaharberrikuntza integraleko proiektu berriaren arabera, eraikinaren higiezina bera barruko aldetik hustu da, egiturak sendotzeko, etxebizitzen banaketak barrutik bertatik berreraikitzeko, higiezina berriro dentsifikatzeko eta, horren ondorioz, solairuko etxebizitza bat gehiago lortzeko.

TITULARITATEEN EROSKETA

Los Baños kaleko 49. zenbakiko higiezin eta orubeko titularitatea erosi zen 2017an. Sestao Berrik jabegoaren %40 gainditu zuen eta salerosketaren ondorengo birkokapenak kudeatu zituen. 2016-2018 epealdirako Eusko Jaurlaritzak banatutako 500.000 euroko diru-laguntzak ahalbideratu du operazioa. Txabarri-El Sol PERRI-ko 3. Egikaritza Unitatearen barruan, Txabarri kaleko 47. eta 49. atarietako kargarik gabeko titularitateak erosteko aurrerapausoak eman ziren 2017an. 2016-2018 epealdirako 450.000 euroko diru-laguntzak ahalbideratuko du atariotako desjabetzea.

“DISTRICT HEATING”

Beste arlo batean, egitasmo berritzaile moduan aipagarri deritzogu “District Heating”, auzorako berokuntza banaketa sarearen proiektua. Txabarri-El Sol ARIko eta Los Baños inguruko hogeiren bat atari elkartuko ditu sareak. 2017an, azterketa juridikoa, soziala, ingurumen-analisia, teknikoa eta ekonomikoa burutu ziren eta jarduketa honi ekiteko sozietateak behar zuen estatutuen aldaketa gauzatu zen. Lizitaziorako proiektu teknikoaren erredakzioa ere kontratatu zen. Eusko Jaurlaritzak 2017-2019 epealdian 350.000 euroko diru-laguntza eman du ekimena gauzatzeko.

ENERGIA BIRGAIKUNTZA - EU-GUGLE PROIEKTUA

Azkenik, Energia Birgaikuntza 3 jardueratarako EU-GUGLE proiektu europarrak elkartzen dituen erkidegoekin egindako prestakuntzak aipatu behar dira:

• **TARTEKATZE 1:** Bi erkidegoz osotuta : Patronatuko Etxadi Txikia, 3 atariz eta soto batez osotuta (Juan Crisostomo Arriaga 17 eta Txabarri 19 eta 21) eta Patronatuko Etxadi Handia, 7 atariz eta 3 sotoz osotuta (Juan Crisostomo Arriaga 15, Los Baños 59,61 eta 63, Autonomia 22 eta 24 eta Txabarri 23), non Sestao Berriko bazkideek (Eusko Jaurlaritza eta Sestaoko Udala) jabego zabala duten, %35-40 jabego pribatuarekin tartekatuta.

• **TARTEKATZE 2:** Bi erkidegoz osotuta: Los Baños kaleko 22. eta 24. zenbakiena eta Autonomia kaleko 31. zenbakiarena, Sestaoko Udalaren jabego zabalarekin.

• **TARTEKATZE 3**: La Bariega kaleko 3. zenbakiko erkidegoarena. Bertan, Sestao Berriren bazkideek (Eusko Jaurlaritzak eta Sestaoko Udalak) higiezinaren tituluen %50etik gora dute.

Energia birgaikuntzarako EU-GUGLE proiektu europarrak diruz laguntzen dituen 5 jarduera proiektuok beste laguntza deialdietara ere aurkezteko gai izan daitezen diru-isurien jarraipena egin zen 2017an. Besteak beste, 2017ko abenduaren 21ean zabaldu zen IDAE – PAREER II Programaren diru-laguntzetarako deialdira aurkezteko; 2018ko hasieran izango dute aukera erkidegoek, auzokoen bileran onetsi ondoren.

Prozesuen mapa

III. PROZESUA BALIABIDEEN ETA SISTEMEN KUDEAKETA

Sestao udalerriak parte hartzen duen proiektu europarretan aurrerapen nabariak lortu ziren 2017an Sestao Berriren partaidetza aktiboaz.

EU-GUGLE PROIEKTUA

Hori da, esate baterako EU GUGLE proiektuaren kasua. Hasieran ondorengo erkidegoak batzen zituen: Txabarri 19, 21, 23, 25-27-29 eta 31; Leialtasunaren Markesa 1-7; Las Llanas Zumarkalea 19-21; Los Baños 22-24, 59, 61 eta 63; Autonomia 21, 22 eta 24; eta Juan Crisostomo Arriaga 15 eta 17. 26 atariotatik bederatzik (Leialtasunaren Markesa kalean dauden zazpik eta Las Llanas Zumarkalean dauden beste bik) uko egin zioten proiektu europarrean parte hartzeari, zaharberrikuntza integralerako proiektuetan ezin zietelako aurre egin ezohiko jarduketei. Halere, jarduketok Eusko Jaurlaritzako RENOVE Programako 540.000 euro inguruko finantziazioa lortu zuten. Titularitate publikoko edota mistoko atarietan, jarduketa energetikorako inguratzaile eta instalazioetako proposamenek egin zuten aurrera eta proiektu eraginkor bihurtu ziren biak.

EU GUGLE proiektuaren bidez, 2019ko martxora arte abian diren energia birgaikuntza jarduketekin Sestao Berrik Europako Batzordearekin hartu duen engaiamenduari eusten dio. Horrela, eskakizun handiko eraginkortasun energetikoaren irizpideen arabera 20.000 metro karratu zaharberrituko dira Sestaon.

TRIME PROIEKTUA

Aurreko atalean, alokairuko etxebizitza sozialen parkeetako biztanleen artean kontzientziazio energetikoa zabaltzeko helburua zuen TRIME proiektu europarra aipatu dugu, 2017ko irailean amaitu zela gogoratuz. Esan bezala, proiektuak “energia enbaxariak” lortu eta hezi zituen Sestao Berrik kudeatu eta proiektu honetan parte hartzen duten udal etxebizitzatako 8 atarietan. Energia enbaxariok kontsumorako ohiturak aldatu zituzten, gainontzeko auzokideen aurrean kontsumoak gutxiarazteko eredu izanik.

NEZER PROIEKTUA

Energia birgaikuntzaren ontasunak zabaltzeko helburua zuen NEZER proiektua 2017ko otsailean amaitu zen. Ia energiarik kontsumitzen ez duten eraikinak eredutzat hartuta zaharberrikuntza energetikoaren ontasunak zabaldu nahi zituen proiektu honi esker Sestao udalerrirako Plan Eragilea sortu ahal izan da.

Aurrekontua

2017an onartuta

HELMUGA	EUSKO JAURLARITZAREN 2017eko AURREKONTUA SESTAO BERRI SOZIETATEARENTZAT	GUZTIRA
EGITURA	800.000 €	1.438.121 €
EGITURAREN GEHIKUNTZA	38.121 €	
TXABARRI 37-43-57	200.000 €	
LOS BAÑOS 49	200.000 €	
TXABARRI 47-49	150.000 €	
DISTRICT HEATING	50.000 €	
2017ko KONPROMISOAK 2018rako	+ 200.000 € (Los Baños 49) + 150.000 € (Txabarri 47-49) +150.000 € (District Heating)	500.000 €
GUZTIRA	EUSKO JAURLARITZAREN 2017ko AURREKONTUA ETA SESTAO BERRIREN ZENBAIT URTETARAKO KONPROMISOAK	1.938.000 €
TXABARRI 25-31 EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZEN HONDARRA	175.778,33 (%10eko Kitapena) 1.757.783,32 €-ko diru-laguntzen arabera	175.778€
TXABARRI 33-35 EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZEN HONDARRA	142.350,24 (%10eko Kitapena) 1.423.502,38 €-ko diru-laguntzen arabera	142.502 €
GUZTIRA	EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZEN HONDARRAK	318.280 €

HELMUGA	SESTAOKO UDALAREN 2017eko AURREKONTUA SESTAO BERRI SOZIETATEARENTZAT	GUZTIRA
TXABARRI 25etik 31ra	25.690 €	25.690 €
GUZTIRA	SESTAOKO UDALAREN 2017ko AURREKONTUA ETA SESTAO BERRIREN ZENBAIT URTETARAKO KONPROMISOAK	25.690 €

Sozietatearen

BILAKAERARI BURUZKO AURREIKUSPENA

Sestao Berrik **jarduketa garrantzitsuez** betetako urtea aurreikusten du 2018, besteak beste, Sestao Berriren sustapen zuzeneko 18 etxebizitzen emanaldia; Txabarri kaleko 33-35 zenbakietako berreraiketa; Txabarri 55.eko eraikuntza lanen aurrerapena hitzarmen-sustapenaren bidez eta EU GUGLE proiektuko energia birgaikuntzarako 14 atarietako lanen aurrerapena (Txabarri 19-21-23, Los Baños 22-24, 59-61-63. Juan Crisostomo Arriaga 15-17, Autonomia 21-22-24 eta La Bariega 2). “District Heating” auzorako berotze banaketa sareari lotutako jarduketaren aurrerapen nabaria ere aurreikusten da Vicente Diez enparantzaren azpian. Baita Karrantza Orubearen eta Eguzkia Pasealekuaren artean kokatuta dagoen 4. Urbanizazio Unitatearen (UU4) urbanizazio lanen udal-kudeaketarako enkargua, eta honekin batera Vicente Diez enparantzan kokatuta dagoen 5. Urbanizazio Unitatearena (UU5) ere.



Zatikako Zaharberrikuntzan aipagarria dugu Los Baños 47 eta Txabarri 39, 65 eta 69 atarietako hautagaitzaren azterketa estrategikoa 2018-2019 epealdirako Eusko Jaurlaritzak emango dituen diru-laguntzak eskuratzeko. Txabarri-El Sol ARIren jarduketetarako diru-laguntza bide berriak miatu nahi dira Eusko Jaurlaritzarekin.

Alokairuaren kudeaketari buruzko jarduketak direla eta, EU GUGLE proiektuaren hiru tartekatzeetan parte hartzen duten jabeen erkidegoetako bileren onespena lortzera zuzenduko dira, udal, autonomiko eta jabego mistoa duten eraikinetako inguratzailearen eta instalazioen birgaitzerako, lan honi dagozkien diru-laguntzak bideratuz. Errentarien energia kontsumoa txikiagotzeko ahalegina ere egingo da EU GUGLE proiektuak bultzatzen duen kontzientziazio eta hezkuntza energetikoaren bitartez, 2017an amaitu zen TRIME proiektuaren menpe egin zen bezalaxe.

Birsorkuntza jarduketen atalean La Punta-ko (Galindo Ibarra) 163 etxebizitzen amaiera eta emanaldia dugu aipagarri, beste jarduketa arlo batzuetako espedienteak gauzatzeko aukera emango digulako eta Rivas kaleko 7, 8, 10 eta 12; Galindo Paduretako 17 eta Ibar Berriko 2 atarietako birkokapenak hurreratzea ahalbidetuko duelako

2018an ere Txabarri 37, 43 eta 57 atarietako **titularitatea** lortzea espero dugu eta baita Los Baños 49. atariari dagokiona ere. Era berean Los Baños 51 eta Txabarri 57 eraistea nahi ditugu orubeon geroa guztien onerako finkatuz etorkizunean.

2018an **Ikastunen Eskola eta Sorospen Etxerako Programa Estrategikoa** idatzi eta onartu nahi dugu eta **La Iberia-Behekoan ARI** berrirako adierazpena egin. Baita Europako beste udalerri batzuetan aurrera eramaten ari diren jardunbide egokietatik ikasteko aukera izan deialdi europarretan parte hartuz.

Azkenik, **Txabarri-El Sol PERRIren 4. aldaketa** behin betiko onartzea espero dugu, Sestao Berriren bazkide diren Eusko Jaurlaritza eta Sestaoko Udalaren artean eguneratutako eta adostutako garapena ahalbideratzeko.

Urteko kontuak

ABENDUAREN 31KO BALANTZEA (Eurotan)

AKTIBOA	MEMORIA OHARRAK	EKITALDIA 2017	EKITALDIA 2016
A) AKTIBO EZ KORRONTEA		**581.328,11**	**607.445,51**
I. Ibilgetu ukiezina	7	250,50	2.331,07
6. Aplikazio informatikoak		250,50	2.331,07
II. Ibilgetu materiala	5	547.679,22	571.716,05
1 Lursailak eta eraikuntzak		545.806,28	568.772,36
2. Instalazio teknikoak, makineriak, tresnak, altzariak eta beste ibilgetu material batzuk		1.872,94	2.943,69
V. Epe luzerako finantza-inbertsioak	9	33.398,39	33.398,39
5. Beste finantza-aktibo batzuk		33.398,39	33.398,39
B) AKTIBO KORRONTEA		**10.960.683,39**	**11.650.667,72**
II. Izakinak	10	5.528.444,71	7.719.455,75
2. Lehengai eta hornikuntza		227.598,83	---
3. Aribideko produktuak		5.294.373,67	7.715.808,82
6. Aurrerakinak hornitzaileei		6.472,21	3.646,93
III. Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk		2.526.825,41	2.617.362,23
1. Salmenta eta zerbitzu-emateengatiko bezeroak	9	11.506,50	2.818,99
2. Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak	9, 23.2	5.632,32	---
3. Hainbat zordun	9	---	4.531,85
5. Zerga korronteagatiko aktiboak	12	1.040,29	1.040,29
6. Administrazio publikoekiko beste kreditu batzuk	12	2.508.646,30	2.608.971,10
VII. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	9	2.905.413,27	1.313.849,74
1. Diruzaintza		2.905.413,27	1.313.849,74
AKTIBOA (A+B), GUZTIRA		**11.542.011,50**	**12.258.113,23**

Urteko kontuak

ABENDUAREN 31KO BALANTZEA (Eurotan)

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	MEMORIA OHARRAK	EKITALDIA 2017	EKITALDIA 2016
A) ONDARE GARBIA		**3.648.909,58**	**4.507.080,53**
A-1) Funts propioak	9	463.424,26	60.102,00
I. Kapitala		60.102,00	60.102,00
1. Eskrituratutako kapitala		60.102,00	60.102,00
III. Erreserbak		---	---
2. Beste erreserba batzuk		---	---
VII. Ekitaldiko emaitza		403.322,26	---
A-3) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	18	3.185.485,32	4.446.978,53
B) PASIBO EZ-KORRONTEA		**1.204.450,27**	**1.602.090,55**
I. Epe luzerako hornikuntzak	14	5.000,00	5.000,00
4. Beste hornikuntza batzuk		5.000,00	5.000,00
II. Epe luzerako zorrak	9	193.507,50	192.781,50
5. Beste finantza- pasibo batzuk		193.507,50	192.781,50
IV. Geroratuko zergagatiko pasiboak	12	1.005.942,77	1.404.309,05
C) PASIBO KORRONTEA		**6.688.651,65**	**6.148.942,15**
III. Epe laburrerako zorrak	9	2.620.410,68	2.569.952,83
2. Kreditu-erakundeekiko zorrak		678.637,93	799.687,59
5. Beste finantza-pasibo batzuk		1.941.772,75	1.770.265,24
IV. Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko epe laburrerako zorrak	9, 23.2	26.328,15	30.525,58
1. Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko zorrak		26.328,15	30.525,58
V. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk		4.041.912,82	3.548.463,74
1. Hornitzaileak	9	2.880.378,00	3.153.153,88
3. Zenbait hartzekodun		571.740,98	35.675,29
4. Langileak (ordaindu gabeko ordainsariak)	9	0,01	(453,79)
5. Zerga korronteko pasiboak		127.364,93	---
6. Administrazio publikoekiko beste zor batzuk	12	105.985,79	26.442,62
7. Bezeroen aurrerapenak		356.443,11	333.645,74
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA (A+B+C), GUZTIRA		**11.542.011,50**	**12.258.113,23**

Urteko kontuak

ABENDUAREN 31KO GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA (Eurotan)

	MEMORIA OHARRAK	(ZORRA) HARTZEKOA 2017	(ZORRA) HARTZEKOA 2016
A) ERAGIKETA JARRAITUAK			
. Negozio-kopuruaren zenbateko garbia	25	3.061.543,55	22.953,54
a) Salmentak		3.035.158,61	---
b) Zerbitzugintza		26.384,94	22.953,54
. Hornikuntzak		(4.205.481,24)	119.032,32
a) Salgaien kontsumoa		(1.463.863,34)	(2.268.276,01)
b) Lehengaien eta beste materia kontsumigarri batzuen kontsumoa		(2.595.385,82)	2.389.453,33
c) Beste enpresa batzuek egindako lanak		(146.232,08)	(2.145,00)
. Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk		2.656.564,53	799.381,27
a) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa korronteko beste batzuk	25	4.153,40	3.423,27
b) Ekitaldiko emaitzan kontuan hartutako ustiapeneko diru-laguntzak	18	2.652.411,13	795.958,00
. Langileen gastuak	13	(395.623,67)	(387.104,28)
a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak		(316.136,15)	(302.841,65)
b) Gizarte-kargak		(79.487,52)	(84.262,63)
. Beste ustiapen-gastu batzuk		(482.761,49)	(497.376,41)
a) Kanpoko zerbitzuak eta kudeaketa korronteko beste gastu batzuk	13	(469.711,35)	(479.419,70)
c) Zergak		(10.753,42)	(12.956,71)
c) Merkataritza-eragiketen ondorioz horniduren aldakuntza, narriadura eta galerak	14	(2.296,72)	(5.000,00)
. Ibilgetuaren amortizazioa	5,7	(26.117,40)	(32.225,89)
. Ibilgetu ez-finantzarioaren diru-laguntzen eta beste batzuen egozpenak	18	26.117,40	32.225,89
. Hornidura gehiegikeria		---	---
. Hondatzea eta immobilizatutakoaren erotasunengatiko emaitza		---	---
. Beste emaitza batzuk		18.827,65	1.514,65
A.1)) USTIAPENAREN EMAITZA		**653.069,33**	**58.401,09**
. Diru-sarrera finantzarioak	9	201,50	1,84
b) Balio negoziagarri eta beste finantza-tresna batzuengatik		201,50	1,84
b 2) Hirugarrenengatik		201,50	1,84
. Finantza-gastuak	9	(122.583,64)	(58.402,93)
b) Hirugarrenekiko zorrengatik		(122.583,64)	(58.402,93)
. Aldaketa desberdintasunak		---	---
A.2) FINANTZA EMAITZA		**(122.382,14)**	**(58.401,09)**
A.3) ZERGEN AURREKO EMAITZA (A.1 + A.2)		**530.687,19**	**---**
. Mozkinen gaineko zerga		(127.364,93)	---
A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO EMAITZA		**403.322,26**	**---**
A.5) ERAGIKETAREN EMAITZA		**403.322,26**	**---**

Urteko kontuak

ABENDUAREN 31KO ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA (Eurotan)

A) ONETSITAKO DIRU-SARREREN ETA GASTUEN EGOERA	MEMORIA OHARRAK	EKITALDIA 2017	EKITALDIA 2016
A) GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA		403.322,26	0,00
Zuzenean ondare garbiari egotzitako diru-sarrerak eta gastuak:			
III. Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	18	1.018.669,05	1.489.965,97
V. Zerga-ondorioak		(244.480,57)	(357.591,83)
2. Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak		(244.480,57)	(357.591,83)
B) ZUZENEAN ONDARE GARBIARI EGOTZITAKO DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK (I+II+III+IV+V), GUZTIRA		774.188,48	1.132.374,14
Galeren eta irabazien kontura egindako transferentziak:			
VIII. asotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	18	(2.678.528,53)	(828.183,89)
IX. Zerga-ondorioak		642.846,85	198.764,13
2. Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak		642.846,85	198.764,13
C) GALEREN ETA IRABAZIEN KONTURA EGINDAKO TRANSFERENTZIAK (VI+VII+VIII+IX+X), GUZTIRA		(2.035.681,68)	(629.419,76)
ONETSITAKO DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK (A+ B + C), GUZTIRA		**(858.170,96)**	**(629.419,76)**

AZALPENA	ESKRITURATUTAKO KAPITALAK	GORDEKINAK	EKITALDIKO EMAITZA	JASOTAKO DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK	GUZTIRA
A. 2015ko URTEKO AZKEN SALDOA	60.102,00	(1.125,41)	---	3.944.024,16	4.003.000,75
I. 2015an irizpidea aldatzeagatiko egokitzapenak	---	---	---	---	---
II. 2015eko akatsengatiko egokitzapenak	---	---	---	---	---
B. 2016. URTEAREN HASIERAN EGOKITUTAKO SALDOA	60.102,00	(1.125,41)	---	3.944.024,16	4.003.000,75
I. Onetsitako diru-sarrerak eta gastuak, guztira	---	---	---	502.954,38	502.954,38
II. Bazkide edo jabeekin egindako eragiketak	---	---	---	---	---
III. Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk	---	1.125,41	---	---	1.125,41
C. 2016ko URTEKO AZKEN SALDOA	60.102,00	---	---	4.446.978,54	4.507.080,54
I. 2016an irizpidea aldatzeagatiko egokitzapenak	---	---	---	---	---
II. 2016eko akatsengatiko egokitzapenak	---	---	---	---	---
D. 2017.URTEAREN HASIERAN EGOKITUTAKO SALDOA	60.102,00	---	---	4.446.978,54	4.507.080,54
I. Onetsitako diru-sarrerak eta gastuak, guztira	---	---	403.322,26	(1.261.493,22)	(858.170,96)
II. Bazkide edo jabeekin egindako eragiketak	---	---	---	---	---
III. Ondare garbiaren beste aldakuntzak	---	---	---	---	---
2017ko AZKEN KITAPENA	60.102,00	---	403.322,26	3.185.485,32	3.648.909,58

Urteko kontuak

ABENDUAREN 31ko ESKUDIRUAREN FLUXUEN EGOERA (Eurotan)

	MEMORIA OHARRAK	EKITALDIA 2017	EKITALDIA 2016
A) USTIAPEN JARDUERETAKO ESKUDIRUAREN FLUXUAK		**486.034,12**	**(1.726.753,38)**
1. Ekitaldiko emaitza, zergen aurretik		403.322,26	0,00
2. Emaitzaren egokitzapenak		(2.527.732,27)	(732.556,91)
a) Ibilgetuaren amortizazioa (+)	5,7	26.117,40	32.225,89
c) Narriaduragatiko balioespen-zuzenketak (+/-)	14	2.296,72	5.000,00
d) Diru-laguntzen egozpena (-)	18	(2.678.528,53)	(828.183,89)
g) Diru-sarrera finantzarioak (-)	9	(201,50)	(1,84)
h) Finantza-gastuak (+)	9	122.583,64	58.402,93
3. Kapital korrontean izandako aldaketak		2.732.826,27	(935.795,38)
a) Izakinak (+/-)		2.193.836,32	(3.043.785,46)
b) Zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk (+/-)		45.540,87	289.530,51
d) Hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk (+/-		493.449,08	1.818.459,57
4. Ustiapen-jardueretako eskudiruaren beste fluxu batzuk		(122.382,14)	(58.401,09)
a) Interesen ordainketa (-)	9	(122.583,64)	(58.402,93)
c) Interesen kobrantzak (+)	9	201,50	1,84
5. Ustiapen-jardueretako eskudiruaren fluxuak (+/-1+/-2+/-3+/- 4)		486.034,12	(1.726.753,38)
B) INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUAREN FLUXUAK		---	**(225,90)**
6. Inbertsioengatiko ordainketak (-)		---	(225,90)
e) Beste finantza-aktibo batzuk.	9	---	(225,90)
8. Inbertsio-jardueretako eskudiruaren fluxuak		---	(225,90)
C) FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRUAREN FLUXUAK		**1.105.529,41**	**1.862.435,74**
9. Ondare-tresnengatiko kobrantzak eta ordainketak		1.225.853,07	1.484.018,24
e) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak (+		1.225.853,07	1.484.018,24
10. Finantza-pasiboko tresnengatiko kobrantzak eta ordainketak		---	378.417,50
a) Jaulkipena		---	378.636,85
2. Kreditu-erakundeekiko zorrak (+)		---	329.823,74
4. Beste zor batzuk (+)		---	48.813,11
b) Itzulketa eta amortizazioa		(120.323,66)	(219,35)
4. Beste zor batzuk (-)		(120.323,66)	(219,35)
12. Finantzaketa-jardueretako eskudiruaren fluxuak (+/-9+/-10)		1.105.529,41	1.862.435,74
D) KANBIO TASEN ALDAKETEN ONDORIOAK		**---**	**---**
E) ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA/MURRIZKETA GARBIA (+/-5+/-8+/-12+/- D)		**1.591.563,53**	**135.456,46**
Ekitaldiaren hasierako eskudirua edo baliokideak		1.313.849,74	1.178.393,28
Ekitaldiaren amaierako eskudirua edo baliokideak		2.905.413,27	1.313.849,74

sestaoBERRI 2010

Pza. Los Tres Concejos 1- bajo
48910 Sestao (Bizkaia)

info@sestaoberri.eus

944 064 460

www.sestaoberri.eus

@SestaoBerri

Sestao Berri 2010